




Astekaria



elgoi



**Gaurik luzeena...
sutan**



LARRANAGA autoeskola



Santa Ana II. 74 10 11 - ELGOIBAR

SAN PEDRO



bailarako jaiak

Ekainak 28, asteazkena

Arratsaldeko 7etan, kanpai jotze eta txafligu jaurtiketa

Ekainak 29, osteguna

Goizeko 11etan, meza nagusia eta prozesioa

Ondoren auzotarren bazkaria

Egun eta gau osoan zehar Olloki eta Ziolar trikitilariak

Gauean, bolo tiraldiak

Ekainak 30, ostirala

Gaueko 9etan, BERTSO AFARIA, Egaña eta Lizasorekin

Ondoren, erromeria Errekalde anaiekin

Gaueko 12etan, bolo tiraldiak

Uztailak 1, larunbata

Arratsaldeko 5etan, haurrentzako jolasak

Gaueko 11etan, sekulako gaupasa

Azkonabieta eta Jokinekin

Gaueko 11,30etan, bolo tiraldiak

SARIAK:

1.ari 10.000 pta. eta "Bodegas Aitz-Bizkar" Julio Buenoren garaikurra

2.ari 7.000 pta.

3.ari 5.000 pta.

4.ari 3.000 pta.

5.ari sorpresa

Uztailak 2, igandea

Goizeko 10,30etan, meza nagusia

Eguerdiko 12etan, ahari jokia

Ondoren, esku pilota partidua

Arratsaldeko 6etan, idi demak.

Partaideak: Ixama (Itziarkoa), Altzubarren

(Eibarkoa), Artadialde (Berritxukoa), Hizlaria: Ziriako

SARIAK:

1.ari 115.000 pta., Udalaren garaikurra,

Kortaberriaren pentsu zakua eta mantak

2.ari 110.000 pta, garaikurra eta pentsu zakua

3.ari 100.000 pta. eta pentsu zakua

Jarraian, zozketa

Egun osoan, Olloki eta Ziolar trikitilariak

OHARRA: Elkarateak ez du bere gain hartuko jaietan gerta litezkeen ezbeharren ardura.

LAGUNTZAILEA: ELGOIBARKO UDALA



elgoi**BARREN**

Nafarroa enparantza 2

☎ 74 41 12

ARGITARATZAILEA:

Elgoibarko Izarra.

LAGUNTZAILEA:

Elgoibarko Udala.

ZUZENDARIA:

Ainhoa Lodoso.

ERREDAKZIO AHOLKULARITZA:

Andres Alberdi, Izaskun Elizburu.

KAZETARIAK:

Ainhoa Lodoso,
Jasone Osoro.

MAKETATZAILEA:

Maite Rementería.

PUBUZITATEA:

Nekane Etxaniz.

ADMINISTRATZIOA:

Josune Fernandez,
M. Angeles Ortuoste.

KOLABORATZAILEAK:

Andres Alberdi, Esteban Antxustegi, Pello Arrieta, Felix Arrizabalaga, Belen Arrizabalaga, Mikel Artola, Mikel Cornejo, Izaskun Elizburu, Jon Etxabe, Jon Eugi, Koldo Galdona, Jose Mari Galdos, Ina Garagarza, Joseba Gorosabel, Lorea Gorostiaga, Xabier Gorriti, Ana Igartua, Maite Iriondo, KOKOE, Joseba Konde, Edurne Korta, Imanol Larrañaga, Antonio Matias, Susana Mujika, Maite Solozabal, Karmelo Urdangarin, Aitor Zabaleta, Julen Zabaleta.

BANAKETA ARDURADUNA:

Imanol Larrañaga

INPRIMATEGIA:

Gertu koop. E.
(Zubillaga Oñati)

TIRADA: 3.500 ale

LEGE GORDAILUA: SS-1.038/92

ISSN: 1133-021X

elgoi**BARREN**ek ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.



Gizakia eta herria

Izarren hautsa, egun batean, bilakatu zen bizigai. Hauts hartatikan, ustekabean, noizpait ginaden gu emai..." dio abestiak, gizakion sorreraren misterioa adierazi nahian.

Hauxe izan da, eman izan zitezkeen aukera guztien artean, gaur egunerarte heldu zaiguna. Kasualitate hutsa, seguraski.

Galdetzen badiogu gure buruari gitariko bakoitzaren existentziatz, edota, orain garena izateko eman behar izandako aldagai guztiez gogoeta egingo bagenu,... zer erantzungo genuke? Zaila benetan. Txunditzea baino ez zaigu gelditzen, harridura sentitu. Harridura, ezaguera guztien jatorria.

Gizakia, osotasunean edo gizabanako bezala hartuta, bere amets, desio, desplazatzen, gorroto, amodio, ahulezia, grina eta abarrek ez da perfektua. Badakigu, baina hori da daukagun bakarra. Zerbait espero izatekotan, hortik baino ez dago ateratzerik. Ezertarako ere, berarekin kontatu beharrean gaude. Eta asmo honekin, mendez mende, gizarteak eraiki izan dira. Horretan datza, baita ere, gizakiaren indarra eta adorea.

Gainera, elkarlanean aritzen denean, gizakiak badaki proiektu amankomunak eraikitzen. Eta, aniztasunetik abiatzerakoan, bakoitzari zor zaion errespetuan oinarrituz, gehiengoaren onerako akordioak lortzeko gai izaten ditugu. Gizakiak nahi duenean, elkarriketaren balorea ezagutzen du.

Eta hemen gaude orain, bere burua euskalduntzat daukan gizatalde batean. Jakin badakigu denok ez gatzela bat, iritzi desberdinak ditugula, ikuspuntu anitzen eta sentimendu kontrajarrien jabe garela. Baina, hala

ere, guztiok, berezko nortasuna daukan herri bateko partaide garela uste dugu eta, geroa ziurtatzeko, horri ekin behar diogulakoan gaude.

"Guztiok gara euskaldun, guztiok anaiak gara, nahiz eta hitz ezberdinez, bat bera dugu euskara" zioen beste abesti batek. Ildo horretatik, euskara batua eraiki genuen, ustez hizkuntza eta hiztunen onerako, garai berriei hobeto erantzun nahian. Ez ziren tira-birak falta izan. Baina aurrera ekin genion. Gaur, hizkuntzaren egokitasuna nabaria da.

Baina ez dago hizkuntzarik hiztunik gabe. Eta ez dago euskararik euskal herririk gabe. Jakingo ote dugu herri bat eraikitzen? Lortuko al ditugu elementu amankomunak gure artean? Edota, hurbildu beharrean, zenbait jarrera itsurekin, ez ote gara, batzuk eta besteok, gero eta gehiago aldentzen ari? Guztiok eroso sentitzeko ahaleginei muzin eginez, hainbat portaera baztertzailerekin, herri barruan beste herri bat gauzatzen ari dela esango nuke. Eta, ondorioz, norgehiagoa alu batean murgil gaitzke, bueltarik gabeko gurpil eroan hondoratuz. Sua piztea erraza da, itzaltzea zailagoa.


Eta zentzugabetasun honen emaitzak guk, guztiok, baino ez ditugu jasango.

Izarren hautsetik sortuak gara eta, gure artean zanpatu egin garelako, orain herri bezala eta betirako, hauts bihur gaitzke, historiaren zakarrontzian bukatuz. Ez ginatete lehenak izango.

Gero ez du aieneka aritzeak balio. Egoera arriskugarri honi aurre egiteko garaia orain-txe da. Geurea, beraz, erantzukizuna.

Esteban Antxustegi

*Eusko Jaurlaritzako
Kultura Sailak, Foru
Aldundiak eta
Elgoibarko Udalak
diruz lagundutako
aldizkaria*





GALDERAK

Unibertsitateko ikasle batek honako galdera hau luzatu digu:

Zergatik ez dute larunbat goizetan Liburutegia zabaltzen azterketa garaian (otsailean eta ekainean)?

Liburutegiko langileekin harremanetan jarri gara eta bere esanetan astean zehar nahiko lanordu sartzen omen dituzte larunbat goizetan ere zabaltzen hasteko.



KEXAK

Laugarren mailako lau neskak salaketa hau egin nahi dute: “Dendari bat kartoia zakarrontzira botatzen ikusi genuen. Urreratu eta kartoiak birziklatzeko ontzietara bota behar zirela esan genion. Berak kartoiak apurtzen ezin zuela denbora alferrik galdu erantzun zigun. Ez zaigu batere polita iruditzen dendari horren jarrera”.

ESKUTITZAK

DEBEMENek EHNEri

Zuen astekariko 109. zenbakian, Deba Beheko EHNE sindikatuak izenpeturiko “DEBEMENen inbertsioa” idatziari buruz, ondorengo zehaztapenak egin beharrean gaude:

1- Gure bailaran EHNE sindikatura afiliatuta dauden baseritarrei jakinarazi nahi diegu DEBEMEN elkartean daukaten Willem Elsenaar Keinplaste ordezkariaren portaera lotsagarria dela. DEBEMENek egiten dituen batzarretara oso gutxitan etortzeaz gain, etortzen denean azpijokoa erabiltzen du eta sindikatuaren iritziak azaldu beharrean, bere interes pertsonalerako erabiltzen du ordezkari hauen.

2- EHNE sindikatuaren aldetik oso seriotasun gutxikoa iruditzen zaigu inplikaturiko elkartearekin informazioa kontrastatu aurretik komunikabide batera idatzi bat bidaltzea. Argitaraturiko datuak testuinguruz kanpo egoteaz gain, guztiz OKERRAK dira. DEBEMENek ez du pezeta bat bera ere ipini gerentearen autoaren erosketarako.

3- Gipuzkoako Foru Aldundia, Gasteiz, Madril edota Europatik datozen diru fondoak DEBEMENen bidez gestiona-tzen dira eta OSO-OSORIK hain beharrean aurkitzen den gure eskualde txiki honetako nekazal inguruetan zerbitzu, ekipamendu eta azpiegituraz hornitzeaz gain, garapen programaketen promozioetarako erabiltzen dira.

EHNE sindikatuak dagozkion neurriak hartzea espero dugu eta bere esanetara gaude DEBEMENen barne funtzionamenduari buruz edozein argibide emateko; itxuraz, sindikatu honek DEBE-

MENen daukan ordezkaria ez baita gai ba-tzar orokorretan hartutako erabakiak bere sindikatuari transmititzeko.

Angel Loiola, DEMENENeko lehendakaria eta beste 11 sinadura

Ongi etorri, Sebas Etxaniz!

Elgoibarko KASEk lerro hauen bidez agurrik eta ongi etorrikerik beroena eman nahi dio Sebas Etxanizi Espainiako gartzelatik herrira libre etorri delako. Ostira-lean AMNISTIA BATZORDEAK antolatutako omenaldi publikoak ondo isladatu zuen herriaren aldeko borrokalari batek merezi duen errekonozimendua: 300 pertsonak bertso, lore eta esker oneko hitzen artean Sebasen borroka ahalegina eskertu zuen.

Basaurin Jabi Gorostiza euskal gudaria gartzelatik atera eta denbora gutxira minbiziak jota hil zaigu. Medikuek salatu dute gartzelan izan ez zuen zaintza medikuak eragin duela Gorostizaren heriotza goiztiarra.

Berri hau AMNISTIA BATZORDEek zabaldu eta salatu dute, gartzeletan euskal preso politikoek jasaten duten bizi-moduaren adibide lazgarri. Komunikabideek, ordea, ez diote eman lekurik berriari. Lazo urdinak betetzen ditu orrialdeak.

Elgoibarren ertzantza/polizia gure herriko intsumitu jatorrak gartzelaratu nahian dabil, eta hauek herriaren laguntza eskatu dute. Guztion laguntza merezi dute ejerzitoaren kontrako ideiak defenditzearen gartzela arriskua bere gain hartzen duten gazteek. Eta kontuz, horien atzetik dabilzanak dira eta, lazo urdinaren apologia egiten dutenak.

ONGI ETORRI SEBAS! OHORE GOROSTIZA GUDARI ERORIARI! EUSKAL HERRIA ASKATU! Elgoibarko KAS

HARRIGORRIGOIKO ERROTABERRITARRAK





Aste honetako erretratua **Ines Intxaustik** lagatakoa da. Erretratua orain dela 40 bat urte ateratakoa da. Bat edo bat non dauden asmatu ezinik badabil, Forrilloren kamioian daudela esango dizuegu.

Zer dela eta daude kamioian igota? **Manolo Rementeriarekin** egon gara eta erretratukoak "Luistarrak" direla esan digu. "Luistarrak" mutil ezkongabeen kongregazioa zen eta urtean behin Arantzazura joaten ziren peregrinazioan kamioian igota. Kongregazio hau San Luis Gonzagaren omenez sortu zen eta ekainaren 21ean ospatzen zen. Urtero izaten den Nahaste Borras-

tea ere "luistarrek" antolatu zuten lehenengo aldiz.

Ikus dezagun zeintzuk diren kamioian igota daudenak: Kamioiaren atzealdetik hasita, ezkerretik eskuinera: **Vicente Elkoru-Iribe, Ernesto Zubiaurre, Garate** eta **Ignacio Arizmendiarieta**.

Bigarren ilaran: **Alberto Loiola (†), Modesto Mujika, Jose Mari Armendia, Javier Arberas, Ramon Etxaniz, Jose A. Etxeberria** eta **Felix Irureta (†)**.

Hirugarren ilaran: **Agirregomezkorta, Sabino Osoro, Jose Iriondo, Ignacio Beloki** eta **Faustino Arregi**.



GENERALI
Aseguru etxea



AUTOEN BABES INTEGRALA

RONKINA ASEGURUAK

Aitor Eizagirre 200-105
San Bartolome, 6 atzealdea
Tel. 74 41 01
20870 ELGOIBAR

MODELOA ETA MARKA	TERCEROS	TERCEROS + KRISTALAK
Seat Ibiza CLX 1.2	46.033	49.610
Renault Clio RN 1.2	46.033	50.301
Peugeot 205 Winner	46.033	49.680
Opel Astra GL 1.7 D	46.033	51.173

Hona hemen txeko edo bizitza aseguru egiterakoan egiten ditugun autoaren aseguruaren prezioen zenbait adibide.

Ikasteko aukera berriak

Lehen bi adar zeuden, letrak eta zientziak. Gaur egun, berriz, ikasleek hasieratik ikasten dituzte gero Unibertsitatean landuko dituzten ikasgai berberak. Aurten, erdiak baino gehiagok gizarte zientzien adarra aukeratu du, %51k konkretuki. Batxilergo zientifikoa ikasleen %22ak hautatu du, teknologikoa %29ak, osasun batxilergoa %5ak eta humanistikoa %1ak. Unibertsitatera joan gabe, batxilergoa egin beharrean Modulo 2 egiteko dagoen kupoa ere beteta dago eta asko zerrendatik kanpo geratu dira.



■ ■ Moduluen bidetik aukera handia dago gaur egun, eta Elgoibarren bertan egin daitezke.

OHO amaitu eta hiru bideren artean hautatu behar dute ikasleek. Hala nola, FP I, BUP edo REM eta Modulu 1 (Ikasbat). BUP eta REM aukeratu dutenek, bi urteren buruan, beste hainbat aukera dituzte, beraiei etorkizuna nondik bidera-

tu nahi duten ikusi eta horien artean gehien interesatzen zaiena hobetsiko dute. Horretarako, gaur egun Elgoibarko Institutuan Orientazio Departamentua dago, ikasleei beraiei aukeraketa egiten laguntzeko. Eginkizun hori dute Mari Jose Gar-

mendia sikologoak eta Amaia Etxeberria orientatzaileak. Horrela bada, FP II, Modulu 2 edo Batxilergoa aukeratu behar dute. Ikasle gehienak batxilergoaren bidetik joaten dira, hor baitaukat aukera unibertsitatera joateko edota Modulu 3 egiteko.

Gizarte Zientziak

Nagore Cuevas
16 urte

- **Zergatik gizarte zientziak?** - Ez nakixan zer egin eta zelan berrixa zan probatzia erabaki naban. Matematika izan ezik beste asignatura danak letretakuak dia, gehixao gustatzen jata.

- **Gerora begira?** - Turismo edo sikologia eifn nahi dot.

- **Gustukoak direlako?** - Bai, gaur egunian ezerk ez daka etorkizun gehixegi eta hobe da gustatzen jatzuna eitxia.



Batxilergo Zientifikoak

Eli Grela
16 urte

- **Zergatik zientifikoa?**

- Garbi nakalako letrak ez zaizkitela ezer gustatzen.

- **Kontuan izan gabe zer ikasi nahi duzun?** - Ez, kontuan izanik injinerutza informatikoa ikasi nahi dotela.


- **Gurasoen eraginik?** - Amak nik musika ikastia nahi zaban baina libre laga die nere aukeria eitxen.



Hiru batxilergo mota

Batxilergoa egin nahi dutenek hiru adar ezberdinen artean bakarria aukeratu behar dute. Beti ere gerora begira zein ikasketa egin nahi duten kontuan hartuta, horietako bat hautatzen dute: teknologiararen batxilergoa, Natur eta Osasun zientzietan batxilergoa eta Giza eta Gizarte zientzietan batxilergoa. Adibide bezala, injinerutza egin nahi duenari teknologikoa aukeratzeko komeni zaio, bertan, besteak beste, industri teknologikoa eta marrazketa teknika ikasiko dituelarik. Zuzenbidea ikasi nahi duenak badu zuzenbidea ikasketa bezala jorratzeko aukera batxilergoan. Medikuntza egin nahi duenak fisiologia eta anatomia lan ditzake institutuan bertan.

Garai batean unibertsitatara joateak zuen garrantzia oraindik ere



Batxilergo Teknologikoa

David Fernandez
17 urte

- Zergatik teknologikoa?
- Diseinuko modulo bat eñ nahi dotelako.
- Unibertsitaterik ez, beraz. - Ez jata gehixegi gustatzen ikastia eta modulu batekin erreztasun gehixoa dao lanerako ere bai.
- Orientatzaileen laguntza ondo etorri zitzaizun?
- Bai, ze haseran ez nakixan ezer ez, esan zien moduluak zeudela eta bastante aukera gainera. Bidia argitxu zien.



Osasun Batxilergoak

Ainara Urkidi
16 urte

- Zergatik batxilergo mota hau? - Adar horretatik doazen ikasketak gustatzen zaizkidalako.
- Zer da aurrera begira egin nahi duzuna? - Medikuntza nahi naban baina gauzak zela dauden ikusitxa...
- Moduluak, zer? - Momentuz ez dago karrera asko eta daudenak ez jataz gustatzen.
- Aurretik aukeratzeko onerako al da? - Bai, baina kasu batzutan gauzak garbi eduki gabe adar bat aukeratu, gustatu ez eta kurtso erdixan aldatu bihar izan dabe.



mantentzen den arren, gero eta bide gehiago irakitzen ari dira ikasleen begien aurrean. Esate baterako, Batxilergoa bukatu ondoren Modulu 3 egin daiteke. Ikasketa hauek bi urtekoak dira. Bertan, Goi mailako teknikoak formatzen dira. Modulu honen barruan Elgoibarren lau espezialitate ezberdin daude. Alde batetik, IMHn Diseinu Industrialia, Fabrikazio Mekanikoa eta makina erremintaren mantentzea ikas daitezke eta, bestetik, Elgoibarko Institutuan Enpresen Gestioa eta Administrazioa.

Injienerutza da hautatuena

Elgoibarko Institutuko ikaslerik gehienek Gizarte zientzien batxilergoa aukeratu dute aurrean. Garai batean letren adarrazen hura da honako hau

KARRERA UNIBERTSITARIOAK	BATXILERGO MOTA	DERRIGORREZKO IKASGAIA
Ekonomika, Enpresariales, Arkitektura, Injienerutza, Matematika, Informatika, Estadistika, Marina...	Teknologikoa eta Natur batxilergoa	Matematika eta Fisika
Injienerutza, Enfermeria, Farmazia, Sikologia, Fisioterapia, Logopedia, Podologia, Medikuntza, Odontologia, Lan soziala, Albaitaritza...	Osasun batxilergoa	Biologia eta Kimika
Informazio zientziak, Politika, Zuzenbidea, Gestio eta administrazio publikoa, Filologia, Filosofia, Geografia, Sikologia...	Giza batxilergoa	Latina
Enpresen administrazioa eta zuzendaritza, Kazaritza, Ekonomikak, Enpresariales, Zuzenbidea, Gizarte laguntzailea, Geografia, Historia...	Gizarte Zientzien batxilergoa	Matematika eta Gizarte zientziak
Arte Ederrak, IVEF, Hezkuntza zientziak, Bibliotekonomia eta Dokumentazioa, Maitutza, Pedagogia...	Mota guztietatik	

ere, baina zenbait aldaketekin. Izan ere, batxilergo mota hau aukeratzen dutenek Kazetaritza, Zuzenbidea eta Filologia ezezik Ekonomikak eta Enpresariales ere ikasteko aukera dute eta badirudi etorkizuna hor dagoela,

enpresa munduan, hain zuzen. Halere, oraindik orain, injinerutza da ikasleek gehien aukeratzen duten ikasketa. Nahiz eta zaila izan eta lehen urteetan demaseko egurra eman, neska-mutil askok hortik bideratzen dituzte

beraien ikasketak. Medikuntza eta zuzenbidea, tradizionalki jendetzarik handiena bildu duten karrekarak, gaur egun gainbehera datoz, gero eta ikasle gutxiagok aukeratzen ditu, irtenbide gutxi dituztelakoan edo.

U.B.I.ko ikaslea

Asier Sainz
17 urte



- **Zuri ez zitzaizun iritsi LOGSE, ez?** - Ez, nik BBBko hiru mailak egin eta UBI amaituko dut aurrean, zientzietatik.

- **Zer moduz?** - Ondo baina pena bat daukat. Nik biologia eta dibujoren artean aukeratu behar izan nuen eta egin nahi dudana karrerarako biak dira beharrezkoak. LOGSErekin ikasgai biak hauta daitezke.

- **Zer ikasi nahi duzu?** - Basoko injinerutza.

- **Horretarako kanpora alde egin behar, ez?** - Bai, Madrilera edo Palentziara, baina ez zait inporta.

Modulu 3ko ikaslea

Nuria Rezola
21 urte



- **Zein modulu egin duzu?** - Enpresen administrazioa eta gestioa, Mekanika.

- **Zein iraupen dauka?**

- Urtebete eta tarte horretan interkanbioan Manchesterren izan ginen.

- **Praktikarik?** - Bai, orain formazio ikastaro bat egiten ari naiz Donostian eta udan Kutxan egingo ditut praktikak, Azkoitian.

- **Eta gustura?** - Bai, oso esperientzia ona izan da. Jendea animatuko nuke horrelako moduluak egitera.

Joaten al zara inguruetakoko jaietara?



UNAI ARIZMENDIARIETA
16 urte, ikaslea

Ondiokan ez naiz hasi, ze gurasuek ez die laga izan. Baina aurten eskatu dot eta lagatzen die. Eibarrera juteko asmua dakat, San Juanetara.



ALEXANDER ZALBA
21 urte, ikaslea

Azterketarik ez dakatenian bai. Lehen lagunekin juten nitzanian juerga haundixaua eitzen naban, oin nobixiak formalao ibiltzen naiz.



MIRYAM IRURETA
18 urte, ikaslea

Bai, ahal doten guztietan. Zapatuan Eibarrera jungo gera, gero Ermuara, Debara, Ondarrura... Etxian ez die toperik ipintzen bueltatzeko.



KEPA OSORO
17 urte, ikaslea

Ez daukat ohiturarik juteko. Lagunak juten dira baina ni ez naiz sekula animatzen, jaietara juteko zozoegia naiz ni, dirudienez.



ELISA RODRIGO
15 urte, ikaslea

Normalean uztailean bertan Sevillara juten naiz oporretara, baina iaz Eibarko jaietara jun nintzan. Gurasoren batek ekartzen gaitu bueltan, hiruak aldera.



ELENA GARCIA
23 urte, ikaslea

Normalian bai. Deba, Mutriku, Getaria... Ambiente onena egoten dan herrixetara juten naiz. Eta behin jun ezkerro, a tope, goizalderarte.



Astelehenetik ostiralera goizeko 9etan zabaltzen dugu



Sebas Etxaniz elgoibartarra omendu zuten joan den ostiralean. Plaza Handian izan zen ekitaldia txalaparta saioarekin hasi zen. Segidan aurrekua dantzatu zen eta Gestorek eta Senideak-ek lore sorta eta plaka eman zizkioten omenduari. Bertsolarien saioaren ostean Gazte Asanbladaren oparia jaso zuen Etxanizek eta komunikatu labur bat irakurri ondoren, manifestazioan zeharkatu zituzten 100 bat lagunek herriko kaleak. Omenaldiari Kimetz elkartearen izan zen bertso afariarekin eman zitzaion amaiera. 50 bat lagun bildu ziren eta bertsotan Unai Iturriaga eta Igor Elorza aritu ziren.

Patin Festa burutu zen Plaza Handian joan den ostiralean, arratsaldeko 5etatik 7,30ak bitartean. Elgoibarko Izarrako *Atxutxiamaika* begirale taldekoen ardurapean 100 haurretik gora aritu ziren patinatzen frontoian eta Plazan. Ilarako patinak moda-modakoak diren zalantzarik ez dago, Plazan ibili zirenen artean kolore fosforeszenteko erroberadun botak baitziren nagusi. Euskal musikak lagundurik, uztaiak inguratu, tunel moduko baten azpitik igaro, enborren gainetik jauzi egin eta antzerako oreka-arietak egiteko aukera izan zuten.



Pilar ikastetxeak eta Ikastolak egun berean, joan den larunbatean hain zuzen, ospatu zuten Gurasoen Eguna. Protagonistak gurasoak izaten diren arren, gure kamararen aurrean erretratua ateratzeko orduan argien ibili zirenak haurrak izan ziren. Joko, kirol eta bestelako ihardueretan partaidetza handia izan omen zen bi ikastetxeetan eta, jai guztietan bezala, lagun arteko bazkariarekin eta iluntzera arte luzatu ziren ekintzekin bukatu zuten jaieguna.



Elgoibarko Izarrak elkarteari buruzko ikerketaren emaitzak kaleratu ditu



“Euskara, Elgoibar eta Elgoibarko Izarra” izenburupean aurkezpena egin zuten hilaren 16an aipatutako Elkartekoek. Kultur Elkarteko lehendakariak, Inasio Garmendiak, ikerketaren zergatia azaldu zuen. “Hiru arrazoi nagusi izan ditugu. Batetik, elkarteak herritarren artean duen ezagutza maila neurtu nahi genuen. Bestetik, Elkartean eta bere ihardueretan parte hartzeko jendearen jarrera zein den ikusi eta azkenik, euskara eta Elkartearekiko jendearen motibazioa ezagutu”.

Ikerketaren egileak, Igor Sota soziologoak, txostenaren ondorio nagusienak azaldu zituen. Bere esanetan arabera, elgoibartarren %94a euskara indartzearen aldekoa da. Elkarteari dagokionean, berriz, Elgoibarko Izarra ezaguna da jendearentzat baina berari buruzko informazio falta igartzen da. Hala ere, jendea prest dago Elkartean parte hartzeko eta sinesten du Elgoibarko Izarraren lanean eta efikazian.



Sanmigeldarren eguna ospatu zuten joan den igandean auzotarrek. Jai egun polita izan zutela azaldu digute eta, besteak beste, ermitaren 150. urteurrena ospatu zuten. Ezkerreko argazkian urtemugaren oroigarriaren bistaratzea dugu. Eskuinean auzotarren arteko eskuz banakako pilota partiduan Fernando Loiolak jantzi zuen txapela eta Roberto Arrizabalaga izan zen txapeldunorde. Auzotarren arteko bazkarian lagun mordoak bildu zen eta parranda berandu arte luzatu omen zen.

■ Karakaten akanpada

Karakateko Komunikabide zentruaren eraikitzeak “ingurugiroari egin diezaiokeen kalteak eta berezko izaera naturalaren apurketa” salatzeko asmoarekin, “Karakate Bizirik” plataformak hilaren 30etik uztailearen 2ra bitartean hainbat ekintza antolatu ditu Karakaten bertan. Hilaren 30ean Madalatik irtengo dira arratsaldeko 6etan Karakatera bidean, zakarrak bilduz. Soraluzetik irteera ordu berean izango da. Gaueko 10etan afaria eta 11,30etan antzerkia, txalaparta eta euskal kantak egongo dira. Larunbatean, uztaileak 1, Hirukurutzetara irteera burutuko da. Eguerdian salda eta txorizoa banatuko dira eta 3etarako ezarri dute bazkalordua. Herri kirolak izango dira jarraian eta 7etan Maltzaga-Urbina eta antenari buruzko hitzaldia. Eguna bukatzeko afaria, kontzertua eta sorgin bila antolatu dira. Igandean Karakate eta bere ingurua garbitu ondoren etxerako buelta egingo da.

■ Bandaren kontzertua

Udal Musika Bandak kontzertua eskainiko du igandean, hilak 25, honako egitarauarekin: “Rubores”, “Contumi Romani”, “Ballad for Band”, “Intocht Der Galdiatoren” eta “El Trust de los Tenorios”. Jose Antonio Osoro zuzendariaren ardurapean, eguerdiko 12,30etan hasiko da saioa Herriko Antzokian.

■ Egur Arte Tailerraren erakusketa

Egur Arte Tailerrak urtean zehar egindako arte-lanen erakusketa egingo du hil honen 26tik uztailearen 9ra bitartean Kultur Etxeko erakusgelan. Bertan ikusgai jarriko dira oleoak, akuarelak eta teknika anitzekin landutako margoak eta eskulanak. Bisitarako ordutegia arratsaldeko 7etatik 9ak arte izango da astegunetan eta eguerdiko 12etatik 2etara jaiegunetan.

Javier Oñederra:

“Bulego bat irekiko dut jendearen kezka jasotzeko”

Javier Oñederra 38 urteko elgoibartar honek, hamalau urte daramatza guztira udaltzain eta kabu lanetan. Duela gutxi sarjentu izendatu zuten eta gogo onez hartu zuten berria. Kargu berriarekin hamahiru udaltzainen koordinaketa

lanaren ardura izango du. Kalearen berri ondo daki eta herritarrei ahalik eta zerbitzu egokiena ematen saiatuko da. Lana eta aisialdia banatzen ahalegintzen den arren, sarritan nahi gabe, udaltzain begiekin begiratzen du.

- Nolatan udaltzain?

- Sasoi hartan langabezian urtebete egin nuen. Elektrizista izanik ez nuen lanik topatzen. Hiru lanpostu irten ziren udaltzain bezala aritzeko eta bost pertsona aurkeztu ginen. Lau urte pasa ondoren, kabu izateko azterketa egin nuen eta oraingoan Udaltzaingoan gauden bi kabuk egin dugu sarjentutzarako azterketa. Eta badakizu, azterketa kale edo bale. Nik oso pozik jaso dut berria.

- Askok aldatu da zure lana?

- Oraindik ez daramat denbora asko baina dena den, ohartzen naiz talde baten buru naizela eta ardura gehiago daukadala. Lehen kabu lanetan udaltzainaren lanaz gain beste ardura batzuk ere banituen. Orain aldiz, akatsak non dauden ikusi behar ditut eta horiek konpontzen ahalegindu beharko naiz.

- Zein da zure lana egun arrunt batean?

- Goizean 8etan sartu eta 2etan irteten naiz. Bitartean, zer? Orain administratuzko lanak ugariagoak dira. Edozein gauza antolatzen dela, lasterketak, festak etab. guzti hori ondo irten dadin antolaketa egokiat eskaini beharko dut ditudan bitartekoekin.



“Sarjentuak, udaltzainak dakiena ondo aprobetxatzen badu, neurriak ezartzeko aukera osoa dauka bere alde”

Honekin batera, datozen idatzi eta galderak erantzun behar ditut. Beraz, koordinatze lana da nirea.

- Zein sasoiaren egoten da lan gehiago?

- Gezurra dirudien arren, euria eta lainopea dauden egunetan jendea aztoratu egiten da gidatzerakoan eta egonezina nabaria izaten da. Hezetasunak badirudi eragina duela jendearengan, urduriago eta erasokorragoa egoten baita. Gainera, jendearen jarrera tratuan aldatu egiten da.

- Zeintzuk dira zuen konpetentziak?

- Herri barruko trafi-

koa, udalarenak diren edifikazioak, materialak etab., ardurak, herri barruan lapurretaren bat gertatuz gero Ertzaintzak zein guk parte har genezake, baina beti ere Ertzaintzak medio gehiago dituzenez, ikerketa errazago egingo du. Azkenean, udaltzaina herritarrengandik gertuago dago eta zerbitzua eskaini dezake eta polizia lana ertzainak egiten du. Nere ustez ertzainak hor daude eta erabil ditzagun euren medioak herritarren mesederako.

- Zein da Elgoibarko arazorik latzena?

- Drogen mundua oso

latza izan da eta herri guztia markatu du. Momentu honetan ikusten ari garen benetako arazoa langabezia da. Langabeziak jendearen artean egonezina sortzen du. Langabezia dagoenean huskeria txikiak ere amorratu egiten zaitu. Askotan albokoak ordaintzen du eta elkarbizitza zailagoa egiten du.

- Sarjentuak ala udaltzaina?

- Egia esan, sarjentu lanetan hamabost egun daramatza beraz, dena den, udaltzainak kalean egiten du lan, kaleko berri ondo daki. Sarjentuak, udaltzainak dakiena ondo aprobetxatzen badu, neurriak ezartzeko aukera osoa dauka bere alde. Arazoak konpontzeko erabakiak hartzeko ahalmena dauka. Sarjentu izateak, beraz, kaletik urruntzen ez bazara arazoei irtenbidea emateko ahalmena eskaintzen dizu. Zentzu honetan, gusturago sentituko naizela uste dut.

- Zer aldatuko duzu?

- Bulego bat irekiko dut jendeak aukera izan dezan hitzegiteko, edozein arazo izanez gero guregana jo dezaten eta guk, ahaleginak egingo ditugu arazoa konpon dadin. Beti ere, jakin dezatela hor gaudela euren zerbitzura.

MAITE IRIONDO

Inauguratu bai, baina oraindik ateak itxita

Pasa den maiatzaren 26an inauguratu zen "Lagun betikoak" izeneko jubilatuen egoitza. Baina oraindik ere ezin izan da ireki bertan dagoen taberna kudeatzeko inor ez baita prest agertu. Dirudenez, bat edo bat urreratu omen da Udaletxera informazio eske, baina baldintzak irakurri eta gero inor ez da animatu. Gauzak horrela, eskaerak aurkezteko epea amaitu da eta eskaerarik ez du inork bete. Inauguratu bai, baina ateak itxita ditu oraindik. Jubilatuen lokala frontoi pareko etxeen azpian dago. Lokal honek taberna normal batek bezala funtzionatuko luke baina bi zatitan banatua. Alde batetik, herriko jendea-

rentzat irekia egongo den zatia eta bestetik jubilatuen aisialdirako txokoa. Honela, prezioei dagokienean, jubilatuek tarifa bereziak izango dituzte. Kili-BARRENEk Udaletxera jo du baldintzen nondik- norakoak ezagutzeko asmoz eta, era berean, kalera atera da jendeak guzti honen inguruan pentsatzen duena galdetzeko.

BALDINTZAK

- 40.000 pta.ko errenta hilero.
- Hasiera batean hiru urteko kontratua.
- 500.000 pta.ko garantia edo abal bankarioa.
- Lokalak irekita egon behar du urteko egun guztietan goizeko 9,30etatik gaueko 12etara.
- Behin-behineko garantia 25.000 pta.koa da.



Frontoi parean dago jubilatuen egoitza.

eta zuk zer diozu?

Iñazio Orbegozo

57 urte,
Aseguru agentea



"Ipin dituzten baldintzak garestiak iruditzen zaizkit

Mendarorako. Inauguratu baino lehen jakin beharko litzateke tabernako kargua nork hartu behar zuen. Alperrik da inauguratzea orain itxita egoteko. Zabalduko al da ni jubilatuta ordurako?"

Regina Garcia

55 urte,
etxeandrea



"Ez zait iruditzen 40.000 pta.ko errenta asko denik, guztia jarrita baitago. Per-

sona egoki batek hartzen badu taberna aurrera aterako dela uste dut, frontoi inguruan gainera beti dago jendea".

Narce Cotrina

54 urte,
etxeandrea



"Eskatzen duten errenta ez da asko, baina beste herri batzuetan udalak

argia, ura eta abar ordaintzen ditu, hemen, aldiz, ez. Milioi erdiko garantia baldintza oso egokia iruditzen zait, modu horretan kontratua beteko dela ziurtatzen baita"

Umeen Euskal Jaia

Datorren igandean izango den Euskal Jaian, Mutrikuko, Azkoitiko, Errenteriko eta Mendaroko dantzarietz gain Lodzeko (Polonia) "Lodz" abesti eta dantza folklorikoaren taldeko haurrak ere izango dira gure artean. Horien eskutik Poloniako folkloreak azalpen zabal bat ezagutzeko aukera izango dugu.

Ikastolako akanpada

1994-95 ikasturteari amaiera emateko Arno Guraso Elkarteak akanpada bat antolatu du. Honela, bada, Ikastolako 3. mailatik 8.era bitarteko haurrak uztailearen 1ean eta 2an Kanpezun elkartuko dira asteburua pasatzeko asmoz.

Eskupilota jaialdia

2

Uztailearen 16an, igandea, arratsaldeko 5etan pilota partiduak jokatuko dira Goñati pilotalekuan. Kadeteen mailan, Ubera II-Atxia bikotea Balzola-Lasagabasterren aurka arituko da. Afizionatuen artean, berriz, Berraondo-Deskarga bikotearen eta Dani-Apesteigiaren artean izango da lehia.

Rock kontzertua

Uztailearen 22an, larunbata, gaueko 12etan eta Goñati pilotalekuan rock kontzertua izango da doan. Urreratzen diren guztiek *Ene Bada* eta *EH Sukarra* taldeen abestiak entzunez gozatzeko aukera ezin hobea izango dute.

Txartel lehiaketa

Mendaroko Santa Ana jaietako iragarkiaren eta egitarauaren azalaren lehiaketako irabazlea Miren Vives Urbieta izan da. Sei lan aurkeztu dira guztira eta Mirenek eskuratu ditu sariaren 25.000 pta.k.

Mendaroko IV. Pilota txapelketa

Uztailearen 1ean Mendaroko IV. Pilota Txapelketaren finalak jokatuko dira, nagusien mailan, gaueko 10etatik aurrera. Lehenik eta behin, gaueko 10etan eskuzko finala izango da Beraza eta Astigarragaren artean. 11etan, berriz, palazko partidua jokatuko dute ekainaren 28ko finalaurrekoetako irabazleen artean.

Bestalde, ekainaren 17an eta 18an infantilen mailako finalak jokatuko ziren. Hona hemen irabazleek izen-abizenak: Ander Zulaika eta Ion Larrañaga palaz eta eskuz. Nesken kategorian, Idoia Arriola eta Nerea Isasti palaz eta Edurne Olazabal eta Lourdes Rodriguez eskuz.




Diapositiba emanaldia

Santanetako atarian eta jai-gosea zabalatzeko, uztailearen 19an eta 20an, gaueko 9etan diapositiba emanaldia izango da Mendaroko Kultur Etxean

Javier Juanesen eskutik. Bestek beste, "Ekialdetik Euskal Herrira" eta "Lanetik festara" gaien inguruko diapositibak ikusi ahal izango dira.



PROTAGONISTAK



Argazki hau **Agustin Maria Berasaluzek** utzi digu. Erretratua Urtian ateratakoa da, 1965 urtearen bueltan.

Hara hemen nortzuk diren bertan ikus ditzakegun neska-mutilak. Goitik behera eta ezkerretik eskuinera:

Lehenengo ilaran: **Luis M. Arrillaga, Juan Jose Arrillaga, Angel Gurrutxaga, Jose M. Zelaia, Juan Agustin Arreitunandia** eta **Simon Gurrutxaga** (†).

Bigarren ilaran: **Jose Luis Zabala, M. Kontxi Mugerza, Gregorio Vives, Angelita Izurrategi, M.**

Karmen Zulaika, Jose Izurrategi eta bere andregaiak eta **Jose M. Arrizabalaga**.

Hirugarren ilaran: **Trini Urbietta, M. Itziar Oñederra, Gregorio Garate, Juanita Izurrategi** eta **Antxon Piñel**.

Laugarren ilaran: **Jose M. Zabala, Begoña Ulazia, Juan Jose Arriola, Miren Juaristi** eta **Itziar Lazkano**.

Lurrean eserita: **Belen Ansola, Roke Arriola, Felipe Arrizabalaga** eta **Agustin Berasaluze**.

OHARRA: Eskertuko genuke jendeak atal honetan sartzeko erretratu zaharrak uztea. Nahi duenak ekar

3

Andoni Tellabide iturgina

■ **Aberastu al daiteke iturgin izanda?**

■ Ez, gaur egun ez dago ofiziorik aberasteko.

■ **Zein da lanik arriskutsuena?**

■ Lan guztiak dira arriskutsuak, baina gure lanean teiltatuak.

■ **Noren etxean egingo zenuke lan gustura?**

■ Edukazioa eta kultura dagoen etxeetan.

■ **Gaua ala eguna?**

■ Eguna.



■ **Zer konponduko zenuke munduan?**

■ Lagun hurkoaren ulertu ezina.

■ **Desio bat?**

■ Norberaren bakea eta lasaitasuna.

■ **Zer egingo zenuke 20 urte bazenu?**

■ Lan munduan hainbestearino lotu gabe egotia.

■ **Nora joango zinateke oporretara?**

■ Euskal Herria ezagutuko nuke.

■ **Itoginak non nahiago, teiltuan ala kaskarrean?**

■ Itoginak? Teiltuan hobe.

AITOR ETXEBERRIA

"Pintura pasio bat da neretzat"

Gero eta ezagunagoa den mendarotar margolari hau ekarri dugu gaurkoan hona. Berarekin solasaldi polit bat eduki ondoren, pinturaren munduan sartu garelako dirudi. Berarentzat, margoa apurtzeko "margotzen jakin behar da", eta pintura, "errealitatea isladatzea baino zerbait gehiago da".

- Zenbat denbora margotzen?

- Hamalau edo hamabost urterekin hasi nitzan, Eibarko margolari batengana joaten nitzan astean behin. Orduan hasi nitzan oleoa ezagutzen eta lienzoan margotzeak zer prozesu zeukan ezagutzen.

- Aire libreko lehiaketara zergatik aurkezten zara?

- Beno, egun horretan kuadro bat egitera behartuta nagoelako, eta kalean margotzea desberdina delako. Kaleko margoan, inprobisazioa eta denboraren muga dago.

- Noiz margotzen duzu bestela?

- Ia egunero, batzuetan ordu bat eta beste batzuetan hiru. Enkarguak ere badituzte, eta kanpoan ez diren lehiaketetara bidalitakoak ere bai.

- Ofizio moduan ikusten al duzu?

- Pinturatik bizi leike, baina ofizio moduan hartuz gero, azkenerako bere xarma galduko luke. Ez, hobe afizio modura, nahiz eta egun guztia pintatzen pasako nukeen.

- Zein estilo lantzen duzu?

- Impresionismoa lantzeko joera

daukat nahiz eta batzutan beste estilo batzuk probatzen ditudan, hala nola, kontzeptuala edo abstrazioa.

- Nola erabakitzen duzu zein estilotan margotu nahi duzun?

- Erabili behar ditudan teknika eta materialeen arabera dago. Jendearentzat margotzen dudana beraien eskatutakoa edo atsegin duten estiloko margotzen dut.

- Nor edo zer gustatuko litzaizuke margotzea?

- Ez dut gauza edo pertsona berezirik. Castilla aldea asko atsegin dut, leku sikuagoak, bertako koloreak desberdinak baitira, hala nola, okrea eta lur kolore gehiago.


- Zein teknika erabiltzen dituzu?

- Oleoarekin margotzen dut, akrilikoak eta teknika mistoa, edo kolageak, testurak landu eta abar.

- Irabazi duzun saririk garrantzitsuena?

- Poz gehien eman zidana lehiaketa nazional batean epaimahaiaren mentzio berezia eduki nuena izan zen. Baina sari guztiak dira sorpresa ze lehenengo aldiz ez duzu espero eta gero konturatzen zara zure margoak besteentzat ere zerbait badirela. Beharbada hori da behar duzun bultzada aurrera jarraitzeko.

- Zerk du garrantzi gehiago, kolo-



reak ala formak?

- Biak lotuta daude. Forma on bat ez da ezer kolore egokirik bat gabe eta alderantziz, kolore nahastu bat ez da ezer formarik gabe.

- Gehien atsegin duzun margolaria?

- Ez daukat bat fijo. Teknika ezberdinak erabiltzen dituzten asko atsegin ditut, baina Tapias eta klasikoen artean El Greko izugarriak dira.

- Non inspiratzen zara?

- Lanean ari naizenean. Hau da, inspirazioa lanean nagoenean etortzen zait, margotzen hasi eta nahi duzun guztia etortzen zaizu.

- Pinturari buruzko ikastaroak eman dituzu. Zer moduz?

- Esperientzia ona izan da, baina denbora aldetik oso gaizki nentzen eta nabil. Jendeak hasteko moduan ikasi zuen, baina pintura etengabeko ikasketa da, sekula amaitzen ez dena.

4

kiliBARREN

Kolaboratzaileak: Joseba Etxebarria, Aitziber Gurrutxaga, Iraide Loiola, Oihana Tarragual, Alaitz Vives, Garbiñe Zabala.



Mendaroko Udalaren dirulaguntzarekin argitaratua



URTEURRENA

ALAIN ALBERDI ZABALA, 1994.eko ekainaren 26an hil zen.

"Ez zaitetz joan seme, izar berri bat piztu arte".



Maria Luisa Esteve**"Bazar desde 100"ekoa**● **Nolatan ireki zenuen honelako denda Elgoibarren?**

▶ Nire asmoa drogeria bat jartzea zen, baina egunkarian denda hau eskaintzen zutela irakurri nuen eta hartzera animatu nintzen.

● **Krisi garaiari loturiko negozioa al da?** ▶ Bai, horrela da.

Gaur egun modan jarri dira horrelako dendak mundu guztian zehar.

● **Non hasi zen moda hau?**

▶ Lehen denda Estatu Batuetan ireki zuten.

● **Zer-nolako harrera izan du Elgoibarren?**

▶ Oso ona, jendeak ondo erantzun du eta ni pozik nago.

● **Opariak jaso ala egin?** ▶ Biak ditut gogoko.● **Opariak askotan konpromenez egiten dira...**

▶ Nik inoiz ere ez. Niretzako oparia norbaitez gogoratzen zarela adierazten duen detailea da.

● **Orduan 100 pta.ko erregaliekin konforme?**

▶ Bai, noski. Detailea da garrantzitsua.

● **100 pta.kin hasita aberasterik ba al dago?**

▶ Ez, honekin bizitzeko soldata bat baino ez da ateratzen.

● **Emakume batek 100 gizonen baino gehiago balio al du?**

▶ Hori ezin da horrela esan. Zein emakume edo zein gizon den hartu behar da kontuan.

● **"Mejor malo conocido que bueno por conocer"?**

▶ Esaera zaharrak hala badio ere, nik ez dut horrela denik uste.

● **Cadena 100 ala Arrate irratia?**

▶ Ez dut ez bata ez eta bestea ere inoiz entzun.

● **Robert Reford-ekin 100 pta.ko zenbat txanponen truke?**

▶ Bere garaian ez nuen pelikula ikusi eta ez diot galdera hori egin neure buruari.

● **Zein ekipok gustatuko litzaizuke 100-0 irabaztea?**

▶ Errealak, noski.

● **Nork merezi ditu 100 zaplasteko?**

▶ Egia esan, orain egoera dagoen bezala, nahiago dut ez erantzutea.

● **Zer eskatzen diozu bizitzari diruarekin eros ez daitekeena?**

▶ Osasuna.



EDURNE KORTA

**ELGOIBAR
SAN MIGEL****DOINUA:**

Ari naizela

Bolatokia frontoia eta
probalekuan erdian
mende ta erdi bete dituen
ermita bat agerian
berdetasunez natura dago
auzoaren atarian
badirudi orain nagoela
utopia zilegian.

Egiazkoa ez da auzoa
utopiaz konformatu
bost kilometro ziztrinen erruz
ametsa ezin gozatu
errepidea konponduz gero
lora polita loratu
San Migel jaiak badatoz eta
hortaz behar gogoratu.



JOSU GUENETXEA



Maiatzaren 23an hil zen **ANTONI ZABALA ANSOLA**ren
sendiak **ESKERRAK** eman nahi dizkizue
une latz honetan lagun izan zaituztegun guztioi.

*"Beti gogoan izango dugu
zure irribarre goxo hori."*



Notaritzako gestioak euskaraz

Notarioarekin gaztelaniaz zein euskaraz hitz egiteko eskubidea izateko eskatzen duen idatzi bat bidaltzea erabaki du Udal Gobernu Batzordeak Nafarroako eta Gipuzkoako Notarioen kolegiara. Bezeroaren eta notarioaren artean euskaraz hitz egiteaz gain, espedienteak eta idatziak ere euskaraz tramitzeko eskubidea izatea eskatzen du Udalak idatzian, inolako gaitzirik izan gabe. Notarioak hiritarren zerbitzura dauden funtzionarioak direnez, gaztelaniaren eta euskararen arteko koofizialtasunari buruz Konstituzioak eta Autonomi Estatutuak diotena bete beharra dute.



Jaietako egitarauaren kartel lehiaketa

Udal Kultur Batzordeak 1995eko San Bartolome jaietarako egitarauaren azala aukeratzeko lehiaketa antolatu du. Teknika librea da, euskarri gogorean egindakoa eta A2 neurrikoa. Ezinbestekoa da "Elgoibar, San Bartolome Jaiak 1995" testua ipintzea. Irabazleak 40.000 pta. jasoko ditu eta lehen elgoibatarrak 10.000 pta.ko saria. Lanak aurkezteko azken eguna uztailaren 3a izango da. Informazio gehiago nahi izanez gero Kultur Zerbitzura jo (74 28 51).

Udal plenoak Guillermo Garate hautatu zuen alkate

Joan den larunbatean osatu zen Udala. EAJ-PNVko zazpi zinegotziak, EAko hirurak, HBko beste hirurak, PSE-EEko biak, PPkoa eta EB-IUkoa eguerdiko 12etan elkartu ziren Udaletxeko Areto Nagusian. Alderdietako kideek kredentzialak aurkeztu zituzten eta ondoren, bakoitzak orri batean hautagai bati eman zion botua. Guillermo Garatek 9 botu jaso zituen, gehiengoa lortuz; hala izan ez balitz, hau da, botuen gehiengoa inork lortu izan ez balu, boturik gehien eskuratu dituen alderdiko zerrendaburua izendatuko litzateke alkate. Pedro Mendizabalek, HBko hautagaiak, bere alderdiaren hiru botuak jaso zituen. Esan zutenez, "guk zerrendarik botatuena errespetatzen dugu baldin eta

arau demokratikoak errespetatzen dituela ikusten badugu. Guillermo Garatek ez du horrelakorik erakutsi. Berak esan duenez, hasteko, HB ez da Udal Batzordean egongo eta hori diskriminazioa da. Guk Udal demokratiko baten alde egingo dugu". Jose Ignacio Ausinek, EB-IUkoak, botu bat izan zuen eta lauk zuriz botatu zuten. Guillermo Garate alkate izendatu zuten eta bere lehen hitzetan, "edozeinen-tzat ohore bat da bere herriko alkate izendatua izatea. Gure eginkizuna denen artean herria aurrera ateratzea da".



EGA
IKASTAROAK

Matrikula zabalik 27a arte

Beka sistema

Plaza Txikia, 3
Tel. 74 13 32


San Bartolome eliza (3. fasea)

- Elorzarrek egin zituzten apainketa lanak kulturarako premiazkoak izanik ere, eraikuntza lanekin jarraitzea ere beharrezkoa zen. Fatxadako arkupeetako zati bat, koruko erdiko hargintza eta klaustroetako sei pilastroi eraiki ziren eta hilobiak banatzeko presbiterioko zolua ere prestatu zen 1717an.
- 1718-1722 urteen artean koruko alboko arkuak, sakristia berria eta ezpataina eraiki ziren. Garai hartan sute bat izan zen eta ondorioz Longak eginiko portada suntsitu egin zen. Gero diseinu berria eman zi-tzaion gaur egun ezagutzen dugun portada berreraikiz.
- 1720-22 urteen bitartean sakristia bukatu zen eta Antonio Elorzak hiru leihoetako burdin-sareak egin zituen. Jose Lizardik, berriz, Errosarioko Andra Maria erretaularako traza bat diseinatu zuen.
- 1722 eta 1724a bitartean, berriz, Juan Etxeberriak ur-aska pieza ederra landu zuen 20 egunetan eta Tomas Bikendi azpeitiarrak ur-pontea egin zuen jaspe harriaz. Era berean, Rafael Zabalia maisu arkitektoari sakristiako ganga dekoratzeko bi lorontzi egiteko mandatu eman zioten. Mateo Azpiazuk, berriz, Olasoko parrokiatik bi erretaula desmuntatu eta eliza berrian muntatu zituen, Gurutzearen aldamenean erretaula eginez.
- Ignacio Aranak mende honen lehen laurdenean gurutzadurako kupulako petxinetan obaloetan mugaturik

dauden eliz doktoreen pinturak margotu zituen. Obalo hauek dekorazio barroko aberatsa dute: festoi, fruta eta zinten bidez osatua eta rokoko gustuko xehetasunez apaindua.

- 1726an gangak amaitu zituzten. Bi urte geroago, Antonio Elorzak koruko burdin-sareak egin zituen eta erlaizako harlanduzko lana amaitutzat eman zen. Tomas eta Antonio Larraza elgoibartarrak elizako obretan parte hartzen hasi ziren.

PELLO ARRIETA



Jose Garagarza Erlojerua (1917-1995)



- 1917ko otsailaren 21ean jaio zen San Migel auzoko bentan.
- Urkaregiko eskoletan ikasi zuen.
- San Migeleko bentarako erosketak egitera jaisten zen herrira "Tilburi" deitzen zioten horietako batean, hau da, gurdi bat eta zaldi batez osatutako dilijentzian.
- Bergarako Calisto Etxeberriaren erlojudendan ikasi zuen erlojuak konpontzen.
- San Bartolome kalean ireki zuen estrainekoz erlojudenda eta bitxidenda.
- Gaur egungo "Garagarza erlojudenda" ireki zuen ondoren.
- Zaletasunen artean, txirridularitza zuen gogoko. Txirridularia zen eta buelta bat baino gehiago egindakoa zen bizikleta gainean.
- Hiru seme izan zituen. Horietatik bik, aitaren negozioarekin jarraitzen dute gaur egun.
- Biar-Dana eta Gure-Bide elkarteetako bazkide-sortzaile izan zen.
- Aurten hil da, maiatzaren 4an.




OIERKI IGONGAILUAK

Urrutira deitu gabe bertakook segituan konponduko dizugu igongailua.

☎ (943) 11 35 15 ● ☎ ABERIAK (943) 11 35 15

Bista Eder, 11 (sotanoa) ● 20600 EIBAR



JOSE ANTONIO ileapaindegia

•Hies-a eta hepatitisaren kontrako tresneriaz horniturik.

•"KERASTASE" tratamenduak; gizon eta emakumeen ilea zaintzeko metododurik egokienak.

Errosario, 30. Tel. 74 14 92. ELGOIBAR

MOTZAK

Elgoibarko jokalariai, eskubaloian golegileenak

Elgoibar K. E. Eskubaloi Taldeko jokalariai diren Jon Zubiaurre, Irma Aldazabal eta Iker Soraluze bukatu berri den eskubaloi denboraldiko golegilerik onenak izan dira Gipuzkoako Federazioaren arabera. Jon Zubiaurre izan da golik gehien sartu duen jokalaria jubeniletan. Kadete mailan, Irma Aldazabal eta Iker Soraluze izan dira golegileenak.

Karate Txapelketa

Olaizaga Kiroldegiak infantilen mailako Karate txapelketa antolatu du larunbaterako, hilak 17, goizeko 11etatik 1era bitartean. Binakako borrokaldiak ikusi ahal izango dira eta ariketa ezberdinen erakustaldia ere egingo dute. Txapelketa Kiroldegiko kantxan izango da.

Diapositiba emanaldia

Morkaiko Mendizale Elkartek antolatuta, Pirinioetako hirumilakoei buruzko diapositiba emanaldia izango da hilaren 29an, osteguna, Jose Inazio Izagirreraren eskutik. Emankizunean Pirinioetako 120 inguru hirumilakori buruzko xehetasunak eta datuak azalduko dira. Esperientzia pertsonalaren bitartez, guztiontzat ezagunak diren mendiak ezezik, hain ezagunak ez diren beste mendi batzuen irudiak ere agertuko dira, udan bertan, oinez ibiltzeko eta eguna igarotzeko aukera eskaintzen dutenak, alegia.



Arantza Beristain:

"Animo asko izan naban txapelketan"

■ **Azken unean, txapelketan parte hartzera animatu zinen.**

- Bai, joan zan larunbatian jendia falta zala eta animatzeko esan ziaten. Beste eskalatzailiak adina ez nabala eingo baina nere mailan ahal nabana eitxeko eta... animatu ein nitzan.

■ **Zer moduzko esperientzia?**

- Politxa, nerbixuak asko, baina merezi zaban. Jendia ere oso jatorra da, hango girua ere bai...

■ **Errepikatuko zenuke?** - Eskalatzeko jarraitzeko asmua dakat, baina konpetitzeko maila haundixa bihar da eta ez dot uste maila horretara helduko naizenik. Ikusi ein bihar.

■ **Nola ikusi zenuen zeure burua?**

- Uste baino gehixao ein naban, urduriago egon eta gutxio eingo dozula uste arren. Gero han, ahal dozuna baino gehixao eitzen dozu.

■ **Eskalatzailleek asko animatu zintuzten.** - Batez ere Patxi Arozenak. Animo ugari eman zian momentu guztian. Eskalatzeko nauanian asko lagundu zian. Expres bat hartzen nabanian txaluak entzuten zian eta horrek asko lagutzen dau.

■ **Ikuslegoaren presioa igarri zenuen?**

- Hasieran nerbixuak daukazu baina gero ez, ahaztu eitzen zera jendia zuri begira dauala.

■ **Txapelketan nola ikusi zenituen?**

- Nigandik oso urrun. Josune Espainiako



txapelketan da eta Leire ere izan da Euskadikoa. Maila handixa daukate, Josunek begibistan 8a+ dauka eta nik gehixen 6. mailara arte eñ dot, behin bakarrik eta laguntzakin.

■ **Noiz hasi zinen eskalatzeko?**

- Lehen aldiz Xoxoten, oin dala 3 urte. Lagun batzuk rokodromuan ibiltzen ziala eta eurekin hasi nitzan juten. Iazko irailian Morkaiko kur-silluan apuntatu nitzan. Orduetik asko ikasi dot Aitor Esnaolakin eta Merinokin, batez ere nerbixuak kontrolatzen, eta zeure burua bota bihar dozunian salto eitxeko indarra...

■ **Zein inguruk harritu zaitu?**

- Orain arte rokodromoan ibili gera eta irteera bat ein dogu Etxaurira. Askok gustatu jatan, super politxa da. Erreunio batian adibidez, altura batian expres batekin arrokara helduta zaudenian, parajia oso politxa da.

■ **Alturari beldurrik?**

- Hasieran gehixao baina oin gutxiao. Oindiok ematen dia baina ohitxu eitzen da bat. Gainera behin konfidantzazko jendia egoten da sokari eusten. Kanpotik jendiak uste du berez dauana baino jausteko arrisku gehixao dauala.

• Adina: 18
• Rokodromo ala haitza? Bixak
• Gogoko pareta? Rokodromoko desplome zaharra
• Indarra ala teknika? Hasieran nahikua da jakintza piskatekin

IRAKASLE ELKARTEA

ZEZENBIDE

auto-eskola

San Frantzisko 43,
74 27 20

Iazko errekorra hautsi zuten Iglesiasek eta Sanchezek Nahaste Borrastean



■ ■ Nahaste Borrastearen XI. edizioko txapeldunak.

Jose Felix Iglesiasek 22 segundutan jaitsi zuen iazko Nahaste Borrastean David Condek lortutako denbora. 22 minutu eta 3 segundutan burutu zuen Iglesiasek ibilbidea. Infantiletan ere, ia 5 minutuko aldea atera zion Gorka Sanchezek iazko irabazleari. Gorkak 9 minutu eta 53 segunduko denbora behar izan zuen lasterketa bukatzeko eta iazko irabazleak, berriz, 14 minutu eta 42 segundu. Nesken atalean Ismene Fulgencio

izan zen lehena eta alebinetan Iñigo Larizek irabazi zuen.

Partaidetzari dagokionean, aurten iaz baino korrikalari gutxiagok hartu du parte. XI. edizio honetan 36 lasterkari inguru izan dira nagusien lasterketan eta hurren kategorian 8 korrikalarik baino ez dute parte hartu. Azpimarratzekotan, emakumeen partaidetza aipatu behar. Iaz bi bakarrik izan ziren eta aurten, berriz, lau emakume.

SAILKAPENA

Seniorrak

- | | |
|---------------------|--------|
| 1- J. F. Iglesias | 22'03" |
| 2- Martin Dominguez | 22'12" |
| 3- David Conde | 22'29" |
| 4- Roberto Garcia | 23'28" |

Neskak

- | | |
|---------------------|--------|
| 1- Ismene Fulgencio | 29'24" |
| 2- M. Isabel Ruiz | 30'00" |
| 3- Gotzone Aierdi | 30'50" |
| 4- Mirari Aranbarri | 35'30" |

Beteranoak I

- | | |
|---------------------|--------|
| 1- J. J. Etxeberria | 24'15" |
| 2- Inaxio Garmendia | 26'00" |

Beteranoak II

- | | |
|----------------------|--------|
| 1- Antonio Fernandez | 30'34" |
|----------------------|--------|

Infantilak

- | | |
|-------------------|--------|
| 1- Gorka Sanchez | 9'53" |
| 2- Jose Sanchez | 10'09" |
| 3- Ibai Etxabe | 10'24" |
| 4- Arkaitz Ortega | 11'02" |

Alebinak

- | | |
|------------------|--------|
| 1- Iñigo Lariz | 10'51" |
| 2- Aitor Rosario | 11'56" |

KIROL FLASHAK • KIROL FLASHAK • KIROL FLASHAK • KIROL FLASHAK • KIROL

Lagun Taldeko Arkaitz Martinez izan zen joan den igandeko "Elgoibarko Lagun Taldearen VII. Txirindulari Saria" kadete mailako lasterketan helmugara iritsi zen lehen elgoibartarra. Laugarren postuan sartu zen elgoibartarra eta irabazlea berriz, Sicesal taldeko Ivan Aristizabal izan zen. Plaza Handiko irteeran 79 txirindulari atera ziren eta Mintxetan helmugara 56 baino ez ziren iritsi. Arratsalde eguzkitsu eta beroa izan zuten 53 kilometroko ibilbidea burutzeko; tartean, Mendaro, Sasiola, Deba, Mutriku, Saturrarán eta Elgoibar zeharkatu zituztelarik. Argazkian irabazlea esfortzuan, azken aldapa igotzen.



Carretero eta Bereziartu, txapelkunak

Euskadiko Eskalada Txapelketako txapelak iaiz jantzi zituzten bi eskalatzaileek jantzi dituzte aurten ere. David Carretero donostiarra gizonezkoen mailan eta Josune Bereziartu ordiziarra emakumezkoetan izan ziren Euskadiko txapelkunak. Irabazleek ez zuten konpetentzia handiegirik izan, bizkaitarrek txapelketan parte ez hartzea erabaki baitzuten.

Hamaika eskalatzailek hartu dute parte Morkaiko M.E.ak antolatutako 1995eko Euskadiko Eskalada Txapelketan. Zortzik gizonezkoen mailan eta hiruk emakumezkoetan; tartean bost elgoibartarrek. Partehartzaile kopuru eskasaren ondorioz ikuskizun eta kalitate aldetik espero zena baino gutxiago eman zuen txapelketak, baina, hala ere, igandeko finalean eta abiadura frogan majo gozatzeko aukera izan zuen ikusleagoak.

Bizkaitarrik ez

Bizkai aldetik etortzekoak ziren bospasei eskalatzailek kale egin zuten azken unean. Bideak irekitzeko pertsona bat izendatzerakoan Ander Gardeazabal bizkaitarrari proposatu zitzaion bera izan zedin bideen ekipatzailea. Antolatzailak eta bizkaitarra ez ziren ados jarri diru kontuetan eta azkenean Patxi Arozena donostiarra eta Dani Andrada madrildarrak hartu zuten eginkizun hori betetzeko ardura. Erabaki hau zela eta, bizkaitarrek txapelketara ez etortzea erabaki zuten.

Elgoibartarrak txapelketan

Txapelketarako eskalatzaile gutxi zeudenez, elgoibartar talde bat Euskadiko txapelketan estrainekoz parte hartzea animatu zen: Josu Merino, Arkaitz Irureta, Arkaitz Saez, Haritz Gomez eta



■ ■ Bizkaitarrek ez zuten txapelketan parte hartu. Argazkian, eskalatzaile guztiak sari banaketa ostean.

Arantza Beristain, hain zuzen. Haue-tatik lau, Merino, Saez eta Gomez gizonezkoetan eta Arantza Beristain emakumezkoetan, pasa ziren finale-ra. Arantzak hiru-garren postua eskuratu zuen emakumezkoetan, Merinok bosgarrena, Saezek seigarrena, Iruretak zazpigarrena eta Gomezek zortzigarrena. Honez gain, lehen elgoibartarrari dagokion saria Merinok irabazi zuen. Abiadura frogan, berriz, Patxi Arozena izan zen bizkorrena. Atzetik Rikardo Otegi geratu zen.



■ ■ Txapelkunak: David Carretero eta Josune bereziartua

SAILKAPEN OROKORRA:

Gizonezkoak:

- 1- David Carretero (41,75 m.)
- 2- Rikardo Otegi (35,50 m.)
- 3- Patxi Usobiaga (32,05 m.)
- 4- Jose Luis Urkizu (26,55 m.)
- 5- Josu Merino (25,50 m.)


Emakumezkoak:

- 1- Josune Bereziartu (36,25 m.)
- 2- Leire Agirre (35,70 m.)
- 3- Arantza Beristain (23,10 m.)



■ ■ Josu Merinok lehen elgoibartarrari emandako saria irabazi zuen.

San Juan bezperan suak piztu eta gainetik salto egin ohi dugu. Sorginkeria, magia, sua, kea eta izpirituak nahasten dituen ohitura zahar honek egundaino iraun du bizi-bizirik. Gaur gauean, suteak piztuko dira berriro. Altzolan, apalditik egin izan duten bezala, Deba ibaian piztuko dute sua. Elgoibarren ere, hainbat lekutan izango da salto egiteko aukera. Modu honetan emango zaio berriro udari ongi etorria.



■ ■ Kartoiei eta paperei gaur gauean emango zaie sua.

Aspaldi hasi ziren gaztetxoek herriko denda eta saltoki ezberdinetan kartoia eta paperak biltzen, gaur gaueko sutea prestatzeko. Zeinek baino zeinek sute handiagoa eta ederragoa prestatzean egoten da lehia, gero, salto egiteko, su txikiak nahiago izaten dituzten arren. Ohiko lekuetan su handiak egingo dira: Erretxindin,


Altzolan, Urasandin eta Ikastola parean. Udaltzaingoak bidalitako oharrari kasu eginez, lau leku hauek su bakarria izatea komeni da, baldin eta handia bada behintzat.

Udako solstizioa izango da larunbatean, hilak 24. San Juan jaiak ospatuko dituzte Altzolan, eta Eibarren ere bai. Sasoi batean jende mordo joaten zen Elgoibartik Altzolako jaietara, gazte, heldu zein nagusi; gaur egun, Eibarrera bisitatxoa egiteko joera askoz hedatuagoa da.

Altzolako San Juanak

San Juan egunak esanahi berezia du altzolatarraren artean. San Juan bezperako sua berez ikusgarria baldin

bada, are ikusgarriagoa da Altzolako. Deba ibaiaren erdi-erdian su handi bat egin ohi dute, puntan kopin handi bat jarritz. Sua emateko prestatutako piloaren barneko alde, suzkorroberaz eta eztanda egiten duten gauzez betetzen dute, sua hartzean, efektua ikusgarria izan dadin. Sugarrrak errepidea baino gorago heltzen dira eta auzotarrentzat gau berezia izaten da. Suak piztu orduko jaiak hasita egongo dira. Aurten ere ez da ohiko ekintzarik faltako: bezperako arbolaren mozketa, San Juan egunentian etxebizitzetako atarietan jartzen den erramua, San Juan eguneko prozesioa... Berbena eta rock kontzertua, sardina eta txokolate jana, aire libreko zinea, pilota partiduak eta beste ekitaldi mordoek osatuko dute jai egitaraua.



■ ■ Altzolan San Juan bezperan arbola mozten dute oraindik. Sasoi batean arbolara igotzen ziren gazteak.

San Juan gauaren ahalmen magikoak

San Juan gauean arbolak loratu eta fruitua ematen dute. Urak ere dohain berezia izaten du: zelaian etzan eta goizeko ihintz freskuan bustitzen da jendea enorrak kendu edota azaleko gaitzak sendatzeko. Gauean itsasoan edo errekan bainua hartzeak energia ematen ei du. Iturrietako ura edan eta gorde egiten da, gau honetan jasotako ura bedeinkatua baitago. Belarrek ere dohain bereziak izaten dituzte: baleriana, berbena, albaraka... Baina San Juanetako ospakizunetan sua da jaun eta errege. San Juan bezperako sugarretan erretzen dira etxekeo tresna eta trapu zaharrak, izpiritu txarrak uxatzen, hainbat gaitz sendatzen eta maiteminduek suaren inguruan dantza egiten dute.

HELMUGA: Estatu Batuak



Council eta Camp-America programei esker, IMHko 25 ikasle inguruk Estatu Batuetara joateko aukera dute. Batzuek kanpamentuetan egingo dute lan, beste batzuek au-pair bezala eta beste askok beraiek aukeratutako bestelako lanen batean. Juanjo Martín, ILSko ingeles irakaslea, hiru urtez izan da programa horietako kide. Orain bere ikasleak direnek aukera bera izatea nahi du.

COUNCIL

18 urtetik gora dutenek eta unibertsitatean ikasten daudenek har dezakete parte programa honetan. Estatu espainiarren eta EEBBen arteko interkanbio kulturalen oinarritzen da. Ikasleei IAP 66 izeneko papera eskuratzen zaie eta paper hori bisatuategatik aldatzen dute kontsulatuan. Bisatuari esker ikasleek aukera dute Amerikara joan eta lan egiteko. Bisatuak ekainaren 1etik urriaren 17ra bitarteko balioa du eta beste hilabete batez luza daiteke bidaiatu nahi izanez gero. Kasu hone-

tan, ikasleak ordaindu beharko du bidaia bera eta egonaldia ere bai. Baina lan egiterakoan jasotzen duten diruari esker gastuak ordain ditzakete.

CAMP AMERICA

18 urtetik gorakoentzat da programa hau ere bai. Baina kasu honetan ez dago zertan unibertsitariora izan beharrik. Kanpamentuetara joateko aukera da, mantenimenduko langile edo monitorea, bakoitzak duen hizkuntzaren ezagupenaren arabera. Bigarrenik, Family Company programaren barruan, au-pair lanetan joateko aukera dago, familia batean haurrak zainduz. Camp-Americaren kasuan, gastu guztiak ordainduta daude, Londresera arteko bidaia izan ezik.

Programa batean zein bestean ikasleak aseguratuta daude, edozer gertatuz gero. Iristen diren egunean bilera informatibo bat izaten dute. Gero, nahiz eta bakoitza bere aldetik joan, hau da, kanpamentuetan bizitzera edota lan egingo duten hotelean bertan, beti dute antolatzaileen babesa.

Ana Caballero

23 urte

Premoduluko ikaslea
IMHn

■ Au-pair zoaz, ez?

- Bai, Camp-America programaren barruan. Connecticut-era noa, Oxford izeneko hiri batera.

■ Zein da zure lana?

- 12 urteko ume bat zaindu behar dut. Dirudienez, bera gaztelera ikasten ari da, beraz, batak bestearengandik ikasiko dugu.

■ **Zergatik zoaz?** - Ingelesa ikasteko, jendea ezagutzeko, herrialde berri bat, beste kultura bat... Bizitzeko era berri bat.



Sebastian Rokandio

18 urte

Gestio eskolako ikaslea

■ **Nora zoaz?** - Meriland-era.

■ **Lanera, ez?** - Bai, hotel batean izango naiz botones lanetan.

■ **Zuk aukeratu zenuen?** - Bai. Zerrenda

bat bidali ziguten aukera ezberdinekin. Idatzi eta iritsi zitzaizkidan lanetatik hau gustatu zitzaidan gehien.



Mikel Uriguen

19 urte

Premoduluko ikaslea

■ **Kanpamendu batera zoaz.** - Bai. Nik ondion ingelesa ez dot ondo menperatzen eta nahixao dot holako toki batera jun.

■ Zein da zure lana?

- Haurren kanpamendu batean mantenimenduko langilea izango naiz, bazkarixa egin, gauzak konpondu, garbitxu...

■ **Nora zoaz?** - Ondiok ez dakit seguru. Londresen hartu bihar dot abioia eta han esango die.



Salerosketak

Soziedaderako bigarren eskuko SUKALDE ELEKTRIKO BAT salgai dago. 8 plaka + laba. Neurriak: 190 x 0,90 x 0,85
☎ 74 23 02 Juan Cruz

FORD FIESTA SS-N bat saltzen dut. Egoera onean.
☎ 58 40 01 (Koldo) gaueko 9etatik aurrera

INPRESORA BAT saltzen dut. Zuri beltzean. Ia berria.
☎ 74 20 95

Atxuri baserrian "COLIE" ARRAZAKO TXAKURKUMEAk dazkagu salgai.
☎ 15 04 41

1m x 0,70mko teknigrafoa duen DELINEAZIORAKO MAHAI BAT saltzen dut. Prezio interesgarria.
☎ 74 22 29

Bi oheko (1,80m) LOGELA "PUENTE" BAT saltzen dut.
☎ 74 28 29
1,30etatik 2,30etara edo gauez

CD ROM IRAKURLEA saltzen dut. Estreinatua gabe. SCSI. Hiru abiadura. CD arruntak ere irakurtzen ditu. (SONY CDU 55 S)
☎ 74 15 69

Etxebizitzak

APARTAMENTSU BAT alokatzen dut ALCOCEBERen.
☎ 74 21 86

Abuztuaren 2. hamabostaldia Ezkarai edo inguruetan etxe bat alokatu nahi nuke.
☎ 19 27 96 (Elena) Iluntzean

ATIKO polit bat daukat ALOKATZEKO.
☎ 74 23 67 (gauez)

SANTA POLAN bungalow bat daukat ALOKATZEKO. Hondartzako lehen ilaran. Ekaina, uztaileko lehen hamabostaldia eta iraila.
☎ 74 27 02

Etxe bat SALTZEN dut ZARAUTZEN Amueblatua.
☎ 78 19 50

Pisu bat ALOKATZEN da uztaile eta abuztuaren DEBAN.
☎ 74 28 24

Etxe handi bat ALOKATZEN da DEBAN, uztaile eta abuztuaren. Alamedan.
☎ 19 22 37 Idoia

Lana

NESKA EUSKALDUN BAT BEHAR DA bi haur zaintzeko.
☎ 74 18 32
Gaueko 9etatik aurrera deitu

Gizonezko bat behar da kristalak garbitzeko.
☎ 74 26 77 Setatik aurrera deitu "Kalamua Coop."

Emakume euskaldunak etxeko eta sukaldeko LANAK EDO NAGUSIAK ZAINDUko lituzke. 17 urteko esperientzia eta kotxeko karneta.
☎ 74 23 30 (Eusebi)

TITULUDUN ERIZAIN EUSKALDUNA, etxeetara erizain edo praktikante zerbitzuak egiteko prest dago.
☎ 74 02 33 Marta Diego Arrieta (Erizain diplomaturia)

Pertsona nagusi edo gazte elbarrituak ZAINTEKO, etxeko lanak eta abar EGITEKO prest nago. Esperientzia daukat.
☎ (94) 616 65 03 Maria Luisa

Bestelakoak

Tituludun irakasleak, PIANOKO KLASEAK ematen ditu. Maila guztiak. Esaminak prestatzeko, lana aurreratzeko...
☎ 74 04 11

Enpresa zientzietan lizentziatuak KONTABILITATEKO INTENTSIBO BAT emango du uztailean. Maila guztiak. Talde mugatuak.
☎ 74 03 95

FRANTSESEKO KLASEAK ematen ditugu.
☎ 74 04 59 (13,00-14,30 eta gauez 20,00etatik aurrera)


Garajeak

GARAJE BAT dut saltzeko pista beltzaren azpian, Institutu parean. Marraduna.
☎ 74 39 19


GARAJE BAT saltzen dut ANAYAK edifizioan. 15m² eta bi planta.
☎ 74 25 01 / 10 82 43

SAN PEDRO

JAIK
ONDO
PASAI



San Pedro Auzoa. Tel.: 74 00 10. ELGOIBAR



23 OSTIRALA

22,15 ZINEA
"Mujercitas"

24 LARUNBATA

11,00 KARATE TXAPELKETA
✓ Olaizaga kiroldegian

22,15 ZINEA
"Mujercitas"

25 IGANDEA

12,30 MUSIKA BANDAREN
KONTZERTUA
✓ Herriko Antzokian

19,30-22,15 ZINEA
"Mujercitas"

26 ASTELEHENA

19,00 PINTURA ERAKUSKETA
✓ Kultur Etxean
Antolatzailea: Egur

22,15 ZINEA
"Mujercitas"

27 ASTEARTEA

22,15 ZINEA
"Salto al vacío"
(Ikuslearen eguna)

29 OSTEGUNA

21,30 DIAPOSITIBA EMANALDIA
Gaia: Pirinioetako hirumilakoak
Hizlaria: Jose Inazio Izagirre
✓ Kultur Etxean
Antolatzailea: Morkaiko M. E.

30 OSTIRALA

22,15 NATHALIA ABESLARIAREN
KANTALDIA
✓ Herriko Antzokian

SAN JUANAK ALTZOLAN

23, OSTIRALA

14,30: Jaien hasiera
18,00: Erraldoi eta buruhandiak
19,30: Salbea
20,00: San Juan zuhaitzaren jartzea
23,00: Suak. Suzko zezena
24,00: Kontzertua *Storbais*
taldearekin
01,00: "Dakin" txiste kontalaria

24, LARUNBATA San Juan eguna

06,00: Zuhaitz adarren jartzea
10,30: Udal Txistulari Taldea
11,00: Meza Eliz-Abesbatzarekin
12,30: Haritz Dantzari taldea
17,30: Pilota partiduak
18,30: Bertsolariak
19,30: Herri Kirolak
23,00: Plaentxi bikotea
24,00: *Izotz* orkestarekin berbena

25, IGANDEA

09,30: Sorpresa
11,00: Meza Nagusia
12,30: Nagusientzako jokoak
13,30: Jaietako errifaren zozketa
14,00: Anaiarteko bazkaria
18,00: Haurrentzako Ginkana
19,00: Sorpresa
20,00: Txokolate jana
22,30: Aire libreko zinea: "Abiss"

SAN PEDRO BAILARAKO JAIK

28 ASTEAZKENA
Arratsaldeko 7etan: Kanpai
jotzea eta txafliu jaurtiketa

29 OSTEGUNA
Goizeko 11etan: Meza Nagusia
eta prozesioa
Ondoren, auzotarren bazkaria
Egun eta gau osoan zehar
Olloki eta Ziolar trikitalariak
Gauean: Bolo tiraldiak

30 OSTIRALA
Gaueko 9etan: Bertso afaria,
Egaña eta Lizasorekin.
Ondoren, erromeria
Gaueko 12etan: Bolo tiraldiak

ZINEA

"Mujercitas"

Zuzendaria: Gillian Armstrong
Antzezleak: Winona Ryder,
Gabriel Byrne, Trini Alvarado,
Samantha Mathis, Kristen
Dunst, Susan Sarandon.
Louisa May Alcott idazlearen
elaberri ezagunean oinarritutako
azken produkzioa da. Liburuak
bezala, March sendiaren
gorabeherak kontatzen ditu
pelikulak. Amak eta lau
alabatxoak, Jo izpirituala, Meg
ederra, Beth samurra eta Amy
erromantikoa, eta gerrak urrundu
duen aitek osatzen dute familia
maitakor hau. XIX. mendeko
bizimodu familiaren adierazgarri
dira protagonistak, baita familiaren
sendotasunaren, etxeko giroaren
eta emakumezkoaren
independentziaren erakusgarri ere.

Salto al vacío

Zuzendaria: Daniel Kalparsoro
Antzezleak: Naiwa Nimry,
Roberto Chalu, Jon Gabella,
Karra Elejalde, Alfredo Villa.
Kalparsoro zinegile euskaldunaren
estraineko pelikula da. Berlingo
Jaialdian aurkeztu zuten pelikula
honek Alex-en bizimoduaren egun
bat nola igarotzen den erakusten
du. Alex 20 urteko neska bat da
eta bere familia osoa mantentzen
du arma trafikoari esker.

txandak

FARMAZIAK:

DATA	EGUNEZ	GAUEZ
24, larunbata:	Ormazabal	Ormazabal
25, igandea:	Ormazabal	Ormazabal
26, astelehena:	Ormazabal	Ormazabal
27, asteartea:	Etxeberria	Etxeberria
28, asteazkena:	Etxeberria	Etxeberria
29, osteguna:	Etxeberria	Etxeberria
30, ostirala:	Etxeberria	Etxeberria

OKINDEGIA:

25, igandea: FOTERO



IRE

Bizikletak

*Uda honetan oporrak
kirola eginez pasa nahi
badituzu, zure
neurriko bizikleta
daukagu.*

*Ez laga azken
momenturako
bizikletaren*

San Bartolome 4, atzealdea (Leku Eder parkea) ☎ 74 43 77



IKASTARO INTENTSIBOAK

Uztailean



■ HIZKUNTZAK

- ☛ Ingelesa
- ☛ Frantsesa
- ☛ Alemana

■ DATAK: Uztailak 3 - Uztailak 29

■ ORDUTEGIA:

- ☛ Goizez
- ☛ 2 ordu egunero
- ☛ 40 ordu

INFORMAZIOA ETA MATRIKULA:
INDUSTRY LANGUAGE SERVICES
San Roke Auzoa, 1. 20870 ELGOIBAR.
Tel: 74 41 32 Fax: 74 41 53

IRU-NABE ESKABAZIOAK



*Ondo pasa
San Pedro jaiak!*

SAN PEDRO AUZOA
☎ 943-74 17 28
ELGOIBAR